

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

132/2015 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, Diputatu Nagusiarena. Honen bidez Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten da 2015-2019 legealdirako

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 19.5 artikuluan, diputatu nagusiari aitortzen dio aldundiko sailak eta haien eskumenak zehazteko ahalmena.

Arabako Biltzar Nagusiak berritzearekin eta diputatu nagusiaren hautaketarekin beste agintaldi bati ekiten zaio foru erakundeetan, eta haren gobernu eta administrazioarako, hala funtzionamenduan nola antolaketan, ezinbestekoa da ondoren adierazten diren neurriak hartzea.

Horregatik guztiagatik, eta aitortzen zaizkidan eskuduntzak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Sail hauek egituratuko dute Arabako Foru Aldundia:

- Diputatu Nagusiaren Saila
- Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila
- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
- Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saila
- Nekazaritza Saila
- Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila
- Ingurumen eta Hirigintza Saila
- Euskara, Kultura eta Kirol Saila
- Gizarte Zerbitzuen Saila.

Bigarrena. Hona hemen Diputatu Nagusiaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Erakundea ordezkatzea
- Gobernuaren jarduna zuzentzea eta sailen arteko koordinazioa
- Gizarte eta erakunde harremanak
- Gobernuaren bozeramaila eta komunikazioaren ardura
- Legezketasun kontrola eta fede publikoa
- Lege aholkularitza eta abokatu defentsa
- Harremanak Biltzar Nagusiekin
- Miñoiak eta babes zibila
- Erreklamazio ekonomikoak eta administratiboak
- Herritarren arreta, erregistro orokorra eta ALHAOren administrazioa
- Berdintasunerako politika

- Immigrazio politika
- Lankidetzak
- Legediak adierazten dituen gainerakoak.

Hirugarrena

1. Hona hemen Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Teknologia garapena, berrikuntza eta enpresa lehiakortasuna
- Ekonomia sustapena eta enpresa lankidetzak
- Industria azpiegiturak eta zerbitzuak garatzea
- Enpresa ekintzailak
- Nazioartekatzea eta kanpo merkataritza
- Foru eta Inbertsio Plana
- Toki finantzaketa
- Toki erakundeei laguntza eta aholkuak ematea
- Suteak prebenitzea eta itzaltzea
- Legediak adierazten dituen gainerakoak.

2. Toki Administrazioaren Sailari atxikitzen zaizkio Foru sozietate publiko hauek: ARABA GARAPEN AGENTZIA SA, NATURGOLF SA, BUESA ARENA SA, ARABAKO LANAK SA eta ARABARRI SA.

Laugarrena. Hona hemen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Zerga administrazioa
- Ekonomia ituna
- Finantzak
- Kontu hartzea eta kontrola
- Aurrekontuak
- Kontabilitatea
- Ondarea
- Estatistikak eta ikerketak
- Europako gaiak
- Legediak adierazten dituen gainerakoak.

Bosgarrena

1. Hona hemen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Prestakuntza eta enplegu plan eta programak
- Autonomoei laguntzea
- Txikizkako merkataritza garatzea eta laguntzea
- Turismoa eta eskulangintza

– Prestakuntza jarduerak langileak kualifikatzeko, enplegua lortzeko eta LHko ikastetxeak hobetzeko

– Enplegu eta prestakuntza planak garatzeko lankidetzaren sustatzea

– Funtzio publikoa

– Langileen euskalduntzea

– Zerbitzu orokorrak

– Informatika

– Arkitektura

– Legediak adierazten dituen gainerakoak.

2. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailari atxikitzen zaio ARABAKO KALKULU GUNEA SA foru sozietate publikoa.

Seigarrena

1. Hona hemen Nekazaritza Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

– Nekazaritza

– Abeltzaintza

– Nekazaritza garapena eta esperimendua

– Landa garapena eta Europako laguntzak

– Mahastizaintza eta enologia

– Mendiak, baso aprobetxamenduak eta zerbitzuak

– Arrantza eta ehiza baliabideen kudeaketa

– Nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak

– Legediak adierazten dituen gainerakoak.

2. Nekazaritza Sailari atxikitzen zaio ALDALUR SL foru sozietate publikoa.

Zazpigarrena

1. Hona hemen Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

– Errepideen plangintza, proiektuak, zaintza eta ustiaketa

– Desjabetzeak

– Garraioak

– Legediak adierazten dituen gainerakoak.

– Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari atxikitzen zaio ARABAKO BIDEAK SA foru sozietate publikoa.

Zortzigarrena

1. Hona hemen Ingurumen eta Hirigintza Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

– Uraren ziklo osoa, nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak izan ezik

– Ingurumena eta paisaia

– Naturaren zaintza

- Naturguneak
- Energia berriztagarriak
- Biodibertsitatea eta fauna eta flora espezie babestuak
- Lurralde plangintza eta informazioa
- Hirigintza kudeaketa eta diziplina
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

Bederatzigarrena

1. Hona hemen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Euskara politikak
- Agiritegi eta liburutegiak
- Museoak
- Zaharberritzeak
- Kultura Etxea
- Hezkuntza sustapena eta kultura hedapena
- Argitalpenak
- Historia, arte eta arkitektura ondarea
- Kirola
- Gazteria
- Ordenamendu juridikoan adierazitako gainontzekoak

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailari atxikitzen zaio GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA erakunde autonomoa.”

Hamargarrena

1. Hona hemen Gizarte Zerbitzuen Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Hirugarren adinekoak
- Ezinduak
- Haurrak eta familia
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
- Prestazio ekonomikoak
- Ordenamendu juridikoak adierazitako gainerakoak

2. Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitzen zaizkio Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eta IN-DESA 2010 SL foru sozietate publikoa.

Hamaikagarrena. Sail bakoitzari egokitu zaizkion arlo eta eginkizunekin bat etorritz, eta sail interesdunek hala proposatuta, Diputatuen Kontseiluak egitura organikoari buruzko dekretuak onartuko ditu.

Hamabigarrena

1. Hurrengo idatz zatian xedatutakoa gorabehera, dauden zuzendaritza, zerbitzu, atal eta bulegoek orain arte esleituta izan dituzten eginkizunak beteko dituzte.

2. Dena den, aldaketa hauek egiten dira horien atxikipenean, mendekotasun organikoan eta izenetan:

2.1. Ezabatu egiten dira lehengo Toki Administrazioaren Saileko Toki Erakundeentzako Zerbitzuen Zuzendaritza eta Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritza, eta, berriz, Diputatu Nagusiaren Sailean, Komunikazio Zuzendaritza sortzen da, eta, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailean, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritza.

2.2. Izen berria ematen zaio lehengo Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Ekonomia Sustapenaren Zuzendaritzari, eta, aurrerantzean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza deituko zaio. Lehengo Toki Administrazioaren Saileko Toki Inbertsioetarako eta Suteak Prebenitu eta Itzaltzeko Zuzendaritza, berriz, Lurralde Oreekaren Zuzendaritza deituko da aurrerantzean. Bestalde, lehengo Herrilan eta Garraio Saileko Herrilan eta Garraio Zuzendaritza, aurrerantzean, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritza deituko da, izen berarekin jarraituko duen sail horretan.

2.3. Diputatu Nagusiaren Komunikazio Zuzendaritzari dagokio eskumen arlo hauek kudeatzea: Gizarte eta Erakunde Harremanak, Gobernuaren Bozeramailletza eta Komunikazioa. Bestalde, Kabinetearen Zuzendaritzari dagozkio bigarren xedapen zatian aipatutako gainerako eskumen arloak.

2.4. Diputatu Nagusiaren Protokolo eta Harreman Publikoen Zerbitzua, aurrerantzean, Gizarte eta Erakunde Harremanen Zerbitzua deituko da, eta Komunikazio Zuzendaritzaren mendean egongo da.

2.5. Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren mendean egongo dira orain arte atxikita zeuzkan zerbitzuez gain – salbu Protokolo eta Harreman Publikoen Zerbitzua–, Gizarte Zerbitzuen Saileko Berdintasun, Lankidetzeta eta Kulturartekotasun Zerbitzua.

2.6. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailari atxikitzen zaizkio lehengo Toki Administrazioaren Saileko Foru Planerako Zerbitzua, Toki Erakundeentzako Aholkularitza Juridiko eta Ekonomikoaren Zerbitzua eta Toki Administrazioaren Zerbitzua, bai eta Toki Administrazioaren Bulegoa ere.

2.7. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzari atxikitzen zaio lehengo Ekonomia Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua, eta, aurrerantzean, Ekonomia Garapenaren Zerbitzua deituko zaio. Hirugarren xedapen zatiko lehenengo puntuko lehenengo bost atalei buruzko eskumenak izango ditu.

2.8. Ekonomiako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuarentzat betzen zituen eginkizunak eta atazak, aurrerantzean, zerbitzu honek beteko ditu, zeinari Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzua deituko baitzaio. Zerbitzu horrek bosgarren xedapen zatiko lehenengo sei atalek aipatzen dituzten eginkizunak beteko ditu.

2.9. Nekazaritza Sailari atxikitzen zaizkio Mendi Zerbitzua eta haren atalak (hiru Basogintza Atalak eta Ehiza eta Arrantza Atala).

2.10. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzari atxikitzen zaizkio lehen Herrilan eta Garraio Sailari atxikita zeuden zerbitzu, atal eta bulegoak.

Hamahirugarrena. Sailetako egitura organikoak onartu ondoren, Diputatuen Kontseiluak baliabide ekonomikoaren eta foru langileen berraxikipena onartuko du, Foru Dekretu honen bidez haien eginkizunak sail desberdinetan banatu diren administrazio unitateen kasuan.

Hamalagarrena. Sailetako foru diputatuei dagokie, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik, beren sailei atxikitako erakunde autonomoak eta foru sozietate publikoak zuzentzea.

Hamabosgarrena. Diputatuen Kontseiluak izan ezik, foru administrazioiko gainontzeko kide anitzeko organo guztiek egun dituzten kideekin jarraituko dute beren eskumenekoak diren gaiak

jorratzen. Dena den, kontuan har daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 14. artikuluan Diputatuen Kontseiluari aitortzen dizkion ahalmenak.

Hamaseigarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari dagokio foru dekretu honetan ezarritakoa betetzeko egin behar diren aurrekontu eragiketak egitea, baita sail berrien kodifikazioa, eta sailkapen organiko eta ekonomikoa egokitzea ere, ahal den neurrian orain artekoak errespetatuz.

Hamazazpigarrena. Indarrik gabe uzten dira foru dekretu hauek: Diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 166/2011 Foru Dekretua, irailaren 5eko 171/2011 Foru Dekretua, bai eta Foru Dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo txikiagoko gainerako xedapen guztiak.

Hemezortzigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE